

Multimedia komunikazio masterrari buruzko hitzaldia eman du Xabier Madariagak EHU-ko Komunikazio eta Gizarte Zientzietako fakultatean

Xabier Madariaga, EHU-ko ikasle ohia, karrera bukatu eta hilabete bat beranduago berriemaile zegoen euskal irratian.

Eider MELGOSA eta Teresa PEREZ

Xabier Madariaga kazetariak, EHU-ko ikasle ohiak, multimedia komunikazio masterrari buruzko hitzaldia eman du irailaren 25ean.

Multimedia komunikazio masterraren helburu nagusia, gaur egun mugikorretan kontsumitzen dugun hedabideetatik etorritako informazioa baina beste enpresa baten ikuspuntutik ikusitakoa da. Aurtengo bederatzigarren edizioa, EITBren eskutik izango da, izan ere, beste hainbat enpresek beraiekin, elkarrekin, lan egiteko aukera ematen dute.

Masterraren eskola-planari dagokionez, derrigorrezkoak diren bederatzizko ikasgai daude, hala ere, hautazkoak diren beste asko daude, horietako batzuk urte honetan berriak jarri dituztenak. Denontzat diren praktikaldiak 3 hilero egiten dira, hala ere, EITB-k 6 hilabeteko kontratu beka berria atera du, 4 ikasleentzat. Hitzaldietako gaiak, gai berezienak izaten dira normalean. Batzuetan, ikasleek proposatutako gaiez ere hitz egiten da.

“Elab” deitutako proiektu batzuetan ere lan egiten daude. Proiektu hau irakasle eta ikasle batzuen eskutik atera da, konprometitu egin direnen eskutik. Ez da urtero aurrera ateratzen baina bai batzuetan. Adibidez, duela zenbait urte korrikaren jarraipen bat egiten zen astebete EITB-n. Proiektua bideratzeko, bi tutore egongo dira, bat EHU-n eta bestea EITB-ko egoitzan. Erabakiak ez ditu zuzendariak bakarrik hartuko, batzar batean hartuko dira masterreko kontuak. Langile eta ikasleen hartean konexio bat sortzea da helburua. Pasa den urtean hainbat ikaslek bertan geratzea lortu zuten. Webgunean informazio guztia lor daiteke.

Xabier Madariagaren karrera profesionala

22 urterekin bukatu zuen kazetaritzako gradua, ekainean, zehazki, eta uztailean Jerusalem zegoen jada, berriemaile euskal irratirako. Izan ere, lehenago hasi zituen praktikak, 3. mailan Erasmusa Londresen egin zuenean. Euskal irratiarekin kontaktatzen zuen Landcaster-en zegoenengan, Londresetik bi-hiru ordutara zegoena eta bertan egin zituen korrespontsal lehen lana. Egun, Xabier Madariagak telesail propioa du “Ur handitan” izenekoa eta gure inguruan ditugun pertsonen euren jokabide bikainaren aitormen publikoa egiteko aukera eskeintzen du saioak. Astearteetan emititzen da 22:25etan EITB 1en.

